

Euskal Herriko eliz Erreformak (1540-1572)

Joseba Intxausti*

“Euskal Herriko” diot, baina agian zuzenagoa izango litzateke Euskal Herrietakoak esatea (Iparraldekoa/Hegoaldekoa), bi erreforma-historia ongi bereiziak izan baititugu gure Herrian (eta, gainera, biak ere Eliza ezberdinetan egindako erreformak, aginte zibil eta erlijioso ezberdinek gidatutakoak). Erreforma horiek erlijiosoak dira, Elizetakoak, aurrez aurre jarritako kristau Elizetakoak. Erreformatan elkarri begira eta bata bestearen aurka ibilitakoak.

Trentoko Kotzilioaren urteak (1545-1563), aurreko eta ondoko hamarkada bana hartuko ditut gogoan, gertakari haren bezperako lana eta ostekoak begiratzeko aukera emango baitigu epe horrek: erdi-erdian dugu Erreforma Protestantearentzat data giltzarria den Augsburg-eko Ituna (1555), lehen aldiko Erreforma-gerrei

aroa moztu ziena; amaierako data (1572), berriz, Frantziako erlijio-gerren erdian (1562-1593) unerik ankerreneko urtea da (San Bartolome Gaua) eta Joana Albretekoaren heriotza-data.

Erljio-grinaz bizi izandako aro kezka eta odoltsu baten altzoan gaude (1517an, Luther-en lehen azalpenak; 1648an, 30 Urteko Gerraren bukaerako Westfaliako Bakea). Kultur lorpenez betetako eta sufrikariozko erditze baten garaia da: Errenazimendua, erlijiotasun berritua (katoliko eta protestantea), Nazio-Estatuen finkapena, pentsamendu modernoa (G. Bruno, Galileo Galilei, R. Descartes, Spinoza), arte barrokoa, etab. Bere azken urratsetan, herritarrei askatasun hobea eskainiz, pentsamendu libreago baten lorpenarako estatueta eta estatuarterko tolerantziaren lehen definizio ez-askiak baina baliozkoak eskaini zituen aroa da. Aro zabalago

* Historialaria. K. A. Euskal Fundazioko Idazkari Nagusia. Donostia

horren barruan gurera mugatuko naiz (1540-1572).

1. Erreforma ezberdinen artean

Protestantismoa berandu gabe agertu zen gurean, bere argitalpenekin Hegoaldean, eta eliz proiektu politiko berriarekin geroago Iparraldean, XVI. mendeko Europako Protestantismoaren bigarren olatu-aldian.

Eliza kristauaren erreforma-beharrak ez zuen aurkitu bere irtenbidea beti bide beretik, eta geroztik bi mundu parekide nagusi izan ditu Mendebaldeko kristautasunak, Eliza katoliko erromatarrarena eta batez ere Luther eta Kalbin-ek gidatu eta hedatu zuten erreforma-mugimenduarena. Bestalde, Eliza katolikoak erreforma-zaletasuna urrundik zekarren, eta Euskal Herrian izan zuen horren oihartzunik, baina betiere beherago ikusiko dugun erreforma-molde mugatuagoan.

Eta Erreformen tartean dago irteera politiko onik gabeko hainbat humanista kristauren erreformazaletasuna: Erasmo eta erasmismo europarra, More, Pole, Vives, eta abar. Botere politikoek –eliztar katoliko eta protestanteek, eta estatutarrek– tarte gutxi utzi zieten bake eta begiramenezko bestelako erreforma-politikei. Erasmo Basilean hil zen (1536), Karlos V.aren diplomaziak Augsburg-en porrot egin (1530) eta bi alde politiko-erlijiosoek norberaren

erreforma arma bidez ere defendatzea erabaki zuten (Esmalkalda, 1531).

Mende hartan bertan heldu zen Euskal Herrira ere eliz erreformaren ahalegina, erreformazale katolikoekin bezala protestanteekin ere. Batzuen-tzat, dotrina-jatortasuna zen lehentasuna eman behar zitzaion arazoa; beste-entzat, ostera, Elizako bizitza garbitzea. Katoliko hauentzat guztientzat –lehentasun ezberdinekin izanik ere– elkarriketa bidezko adostasunik ezean, bidezkoa izango zen Estatuaren boterea eta armak ere kristau guztien batasunaren alde erabiltzea.

Etena sortzean eztabaida teologikoa eta predikua erabili ziren adimena eta borondateak irabazteko; baina, besterik ezean, baita legea eta zigorra ere, Elizaren batasuna hausten omen zutenen kontra (hau da, katoliko erromatarrek lehen unean ebanjeliozale luthertarren aurka, eta gero erreformatu kalbindarren aurka), edo Bibliako Hitza zapuzten omen zutenen kontra (hau da, protestanteek katolikoekin aurka). Kasik mende eta erdiko gerra (bereziki Alemania, Frantzia eta Herbehereetan), tortura, presondegia eta heriotzak egon ziren, bi aldeetan, guztien gainera Inkisizio katolikoaren historia sinestezina indarrean zela.

Euskal Herrira ere hori dena heldu zen.

2. Euskal Herriko erreforma katolikoaz

Dakigunez, badirudi erreformazale protestanteen lehen paperak 1523ean iritsi zirela Euskal Herrira, Pasaiaiko portura; baina Inkisizioko mutilak erne zeuden eta bildu ahal izan zituzten. Geroztik, kostalde horretako komentak sortzean (Donostian, adibidez), proiektuen aldeko arrazoiaren artean aipatuko da mugaldea arrisku luthertarretatik zaindu beharra, zer esanik ez Nafarroa Beherean Eliza Erreformatuak bere ofizialtasuna izan zuenetik (1560).

Hemen datu xume batzuk gogorazi nahi ditut, eliz erreformei zegozkienak. Hasteko, gogora dezagun euskal Hegoaldea besarkatzen zuten bi diozesi handietan (Iruñea eta Calagorri) baliozko gotzainak izan genituela 1540-1560. urteetan.

Iruñeko gotzainak (1539-1561)

Ezaguna da nola Trentoko Kontzilioan (Vatikano II.a arte Eliza katolikoa hain hertsiki arau-lotu zuen Kontzilio hartan) bi proiektu katoliko kontrajarri egon zirela, bakoitzak bere gisara hango eztabaida eta erabakietan

eragin zuzena izan zutenak: alde bate-tik, Karlos V.aren gotzainek-eta bultzatu nahi zuten erreformazaleena (Elizako egiturak berbideratzeko, kleroaren eta fededunen biziera kristaua indarberritzeko), eta, bestetik, bere sostengurik onena Erromako Kurian aurkitu zuen dogma zaleena (sinesgai katolikoak hobeki finkatu eta Luther-en dotrina-proposamenari hedapen-indarra kentzeko).

Aipatutako bi diozesietako Gotzain bana, bederen, Karlos V.ak bere gizon bezala bidalitako gotzain-zortzikotean egon ziren Trenton: Pedro Pacheko Iruñeko Gotzain izana (1539-1545), eta Juan Bernal Díaz de Luku (*Luco*), Calagorrikoa (1545-1556). Garrantzizko datua da hori. Iruñeko urte haiek beste bi pertsoniarekin osatzen dira: Antonio Fonseca (1545-1550) eta Alvaro Moscoso (1550-1561) gotzainekin.

Goñi Gaztanbide-k historia kritikorekatua eskaini dio Pacheco-ri¹, eta Telletxea Idigoras-i zor diogu kardinal izango zen honen hainbat gutunen argitalpena². Bide batez, gogora dezagun Pacheco gotzain erdalduna bertako kalonjeek euskalduna eskatu ondoren heldu zela Iruñera³.

¹ Goñi Gaztanbide, J., *Historia de los obispos de Pamplona. III. Siglo XVI*, Universidad de Navarra, Iruñea 1985, 299-341.

² Tellechea Idigoras, J. I., "El cónclave de Paulo IV: Cartas del Cardenal Pedro Pacheco", in: *Cuadernos de investigación histórica* 18, 2001, 379-406.

³ Goñi Gaztanbide 1985, 291.

Pacheco-ren ibilera eliztar eta politikoak Karlos V.aren funtzionario-irudia du, Enperadoreak eman zizkion eginkizunetan eman baitzuen bere bizialdia, Erreinuko Erakundeen erreformak egiten (Salamanca-ko Unibertsitate eta Valladolid-eko Audientzia), eta aurrerago Napoliko Erreinuan erreformatzaile politiko eta erregeorde bezala. Aldi berean, Koroaren eliz politika gidatzeko gizon hautatua gertatu zen⁴, nahiz eta Mondoñedo eta Ciudad Rodrigo-ko diozesietan gotzain bezala funtsezko lanik ez zuen egin, bestelako lanetan ibili behar izan zuelako. Koroari egindako zerbitzuek eta Enperadoreak zion estimuak, ondoko urteetan beronen gotzain-taldearen buru izateko eraman zuen Trentora.

Dena den, Iruñean aro berri bati eman zion hasiera, “Erreforma katolikoaren” epeari (1539-1561)⁵. Horretarako denborarik hartu ahal izan zutenetan, esku irmoz eraman zituen erreformak, zailtasun eta pertsoneri zirtizarta aurre eginez. Iruñean ere ez zituen izan harreman samurrak inguruko eliz jendeekin.

Baina erreformarena gogoan zuen beti, apaizengana ez ezik herritarrenganaino eraman behar zen erreformarena. Lehenengoengana iritsi eta pastoral-lanak arautzeko, 1544ean Sinodoa bildu zuen; orain, eskueran daude, argitaratuta, Sinodo hartako lanak⁶.

Bestelako zereginik ere hartu zuen: parrokiak herriz herri ikustatzen ibili zen, diozesi barruti osoan, Nafarroan eta Gipuzkoan, eta Telletxeari zor diogu, adibidez, Donostiako San Bizenten utzi zituen oharren argitalpena. 1540ko uda-udazkenetan lau hilabetez ibili zen Probintzian. Fededunen ondoan egon nahi zuen eta berauek eskutik eraman: adibidez, gaur harrigarria gertatzen zaigu herritarren Pazkoazkoa betetzearen kontrola nola herrietan izendatuki eraman nahi izan zuen. Inoiz suertatu zitzaion “leuterianoa” omen zen eta Arbizuko Elizan santuen irudiak hautsitako herritarra Iruñean preso hartu behar izatea ere.

Hurrengo gotzaina, Antonio Fonseca, Trentora deituta baina joan gabe, libre izan zuen denboraz baliatu

⁴ Martín González, A., *El cardenal don Pedro Pacheco, obispo de Jaén, en el concilio de Trento (Un prelado que personificó la política imperial de Carlos V)*, CSIC, Madrid/Jaén 1974. Ikus Goñi Gaztanbide 1985, 304: “Hasta este momento [1539] Pedro Pacheco, hombre duro, hace figura de funcionario del Estado más bien que de hombre de Iglesia”.

⁵ Goñi Gaztanbide 1985, 299. “La figura de Pedro Pacheco abre una nueva época en el episcopologio de Pamplona. Marca el tránsito del Renacimiento a la Reforma Católica. El fue el primer obispo que, tras la funesta serie de prelados ausentes o comendatarios, no sólo residió personalmente en su diócesis, sino que trabajó intensamente en revitalizarla”.

⁶ García García, A., *Synodicon hispanum. VIII. Calahorra-La Calzada y Pamplona*, BAC, Madrid 2007.

zen diozesian bertan lan egiteko. Burlatako adibideak balio badu, urtero bisitaldiak egiten ahalegindu zela esan behar da, pertsonalki nahiz ordezkari bidez. Arauzko ikuskaritzarekin batera, elizgizonen prestakuntza begiratzetik arreta handiz arduratu zen, apaizgaiek mailaz maila igotzeko zer jakin behar zuten esanez (irakurmena, gramatika, latina eta abar). Sinodo ordeko Ordenantzak eman zituen, liturgian *Breviarioa* erreformatuz eta arauen artean ohar hau emanez: “Muchos pobres, por no tenerse con ellos la cuenta que con los otros cristianos, dejan de confesarse y de comulgar”. Horrela, bada, herritar xumeenen erlijiosunari axolaz begiratu zion.

Alvaro Moscoso gure hirugarren gotzainak ere bere lan-egitarauan izan zuen erreformaren hau: Liturgiako liburuetatik sineskeria-aztarnak garbitzen saiatu zen, baina batez ere erlijiosoen biziera berritzeko urrats programatuak eman zituen: 1550eko hamarkadan hasita, Urdazubiko premontrarrak, Marcillako agustindarrak, Orreagako kalonjeak eta La Olivako zistertarrak erreformatuz eta berehala baita mojen artean Iruñea eta Lizarrako klaratarrak ere bizi-modu berri hertsia gora zuzenduz. Historialariek erakutsita daukate, garaiko politika eta interes ez hain garbien sasi-tan trabaturik, erreforma hauek nolako

arazo eta zailtasunak izan ohi zitzuten⁷.

Gotzain horien ondoren, 1560. etako urteetan diozesiko egitura-berritzeak aitzina egin zuen eta Felipe II.aren eta Pio V.aren politika kontrarreformistan jo zuen bere goia, batetik Baiona eta Iruñeko diozesiarteko mugak aldatzean eta, aldi berean, Ordena erlijiosoetako “Klaustroa” zeritzana (erlijioso-familiatan Erdi Arotik jatorri-ofizialtasun osoa zuena) deuseztatu eta Obserbantziak ezartzean, hau da, Ordenetako Adar erreformatuen bidez Ordena-Erakundeak Koroaren eliz politikaren mende jartzean (1566-1567).

Espanian Kontrarrefoma betebetean nagusitu zen, hau da, erreforma katolikoak bere legezko tresneria instituzional eta ideologikoa gogortu egin zuen: gogora 1559ko “annus horribilis” hura, pentsamenduaren kontrolerako Fernando Valdés Inkisizio-buruak liburu debekatuen *Catalogus*-a argitaratu eman zuen urtea, Erreinuko ikasle gazteak atzerriko Unibertsitateetara joateko debekua ezarri zena eta Karrantza Toldeko artzapezpiku nafarra preso hartutakoa⁸.

Nafarroako albiste haien ondoan eta Espainiako haizeak horrela aldatu aurretik, bestelako historia ezagut

⁷ Goñi Gaztanbide 1985, 522-582.

⁸ Ik. Parker, G., *Felipe II. La biografía definitiva*, Planeta, Barcelona 2010, 327-342.

dezakegu Calagorriko diozesian, Araba osorik, eta Bizkai eta Gipuzkoa partez hartzen zituen barrutian, alegia. Baina hori, atzera jota, 1540. etako urteetatik hasita ikusi behar da.

Calagorriko Luku gotzaina (1545-1556)

Joan Bernal Díaz de Luku Sevillan jaio zen, 1495ean. Joan Bernal haurrak ama arabarra zuen (Luku herriko alaba), eta aita, berriz, jatorriz edo jaiotzez Huelvakoa. Nahikoa segurutzat eman liteke, amaren izena Maria de Lekeitio zela, eta segurutzat Cristóbal Díaz aitarena, subdiakonua berau eta Sevillako katedraleko arrazionarioa. Elizgizon baten sasikoa zen, beraz, baina borta izanik ere, gora egin ahal izan zuen Elizan⁹.

Jaioterria gorabehera, Luku-ren arabartasunak erro ziurrak ditu: amaren sorterriaren izena hartu eta erabili zuen deituratzat; oztopagarri izan zitekeen bere sasikotasunak ez zuen jatorria ezkutatzera eraman: “Díaz de Luco” edo “Dk. Bernal” bezala ezagutu zuten bere garaikoek.

Bere familiartea eta Luku herria biziki maite izan zituen, hilburuko borondatean eta testamentu-erabakietan agerian utzi zuenez; Euskal Herriko eta herri euskaldunetako jendearekiko

ardura bizia ikusten zaio Joan Bernali bere lan pastoraletan. Azkenik, Luku-ko elizan ehortzi zuten, noiz eta nola zuirki ez dakigun arren, eta hantxe dago egon ere, hain maiteak izan zituen herritar haien ondokoen artean, elizako aldare aurrean.

Jakituna, idazlea eta garaiko politikan sarturiko elizgizona izan zen On Joan Bernal. Unibertsitate-ikasketak Salamancan egin zituen, Dekretuetan (1510-1521), baina doktoretza Huescako Unibertsitatean irabazi zuen (1525). Horren aurretik, ordea, bere lehen liburua argitara emanda zeukan (1520).

Ondoren, argitalpen juridikoak eta zerbitzu pastoral-politikoak, denak batera joan ziren Lukuren bizitzan, eliz Hierarkiaren eta Koroaren esanetara. Tavera kardinalaren zerbitzari zela, eta egiteko hau utzi gabe, 35 urterekin Indietako Kontseiluko izendatu zuten (1531), eta honek aukera eman zion Mundu Berriko gorabeherak ezagutu eta Aurkikunde eta Konkistek Penintsulan eta Europan sortu zituzten arazoetan lekuko izateko, izan ere Indietako Erret Kontseilu Goren hau baitzen Ameriketako politikarako Koroaren Erakunde nagusia.

1541ean (Amerikarekiko politika osoa susmopean erortzera zihoan unean), Kontseiluari “erresidentzia”

⁹ Luku-ri buruzko xchetasun gehiago aurreratu ahal izan nituen beraren bosgarren mendeurrenekoan (1495-1995): “Euskararen eliz erabilpena eta Luku Gotzaina”, in: *Sancho el Sabio*, 1996, 243-274.

egin zitzaion (gaur auditoria esango genuke), eta Luku izan zen garbirik eta sano atera zen kontseilukide bakarra. Ez da harritzekoa, hortaz, 1549an Las Casas-ek Luku berriro Kontseilura itzularaz zezatela eskatzea.

Lukuren alderik nabarien eta lehiatsuenetakoa erreformazaletasuna izan zen. Ardura horrek Hierarkiaren eta, oro har, kleroaren zabarkeria eta nola-halako burubideak salatzeran eraman zuen, batetik, eta kristau-herriaren heziketa hobearren premia azpimarratzeran, bestetik (predikua, katekesia).

Burutik hasita biziberritu eta bizihobetu nahi izan zuen Eliza: Toledon, artean gizon gordina zela (1536), Erret Kontseilutik, noski, eta Trenton eta Calagorriko Elizbarrutian gero (1546, 1553). Idazlanek, hitzaldiek, Sinodoek eta harreman politikoez, guztiek balio izan zioten apaizeriaren eta eliz ardura-dunen erreforma sustatzeko.

Baina erreforma-politika honen aurretik eta aldi berean, Lukuk bibliografia zabala utzi zuen idatzi eta argitaratuta, edo argitara gabe: 30ren bat obra dira haren lumatik irtendakotzat eman ditzakegunak, latinez eta gaztelaniaz. Bi kapitulu nagusi handitan bana daitezke idazlan hauek: legeria kanonikoa eta espiritualitateaz dihardutenak, betiere teoria hutsetara baino praxira begirago zeudenak. XVI. mendeko eliz idazle handienen artean ez

badago ere (Vitoria, Soto, Karrantza, frai Luis Granadakoa nahiz Leongoa), Lukuk toki aski duina merezi du mende hartako eliz idazleen artean.

Luku-ren ahotsa Penintsulan ez ezik Trento-tik Europan (eta Indietako Kontseilutik Ameriketara ere) entzun ahal izan zen, betiere jatorrizko argitalpenak eta itzulpenak lagun; haren obretako batzuek, gainera, zabalkunde ederra ezagutu zuten mende hartan, autorea bizi zela eta hilondoan ere (adibidez, *Practica criminalis*-ek 27 ediziotaraino izan zituen XVI.ean).

Calagorriara gotzain etorri aurretik ere (...1545), pentsamoldez eta jarreraz erreformazaletzat aski definituta zegoen Díaz de Luku. Idazle bezala esanda zeuzkan esatekoak, bere idazlan juridiko eta pastoraletan, eta diozesi ezberdinetan entseaturik zegoen erreformazereginetan. Horrela, Fonseca, Espainietako Primatua suharki eztenkatu zuen Lukuk, artean gaztea izanik, bere Artzapezpiku-barrutian erreformari ekin ziezaion: 1530eko *Epístola Exhortatoria a Don Alonso de Fonseca*.

XVI. mendeko erreforma-korronteen barnean ikusi behar dugu Luku (agian, osorik inoren korronte-eskola-tan sartu gabe). Garaiko zenbait erreformazalegandik jasotako iradokizunak, bere labean ondu ondoren, tokian tokiko beharretara eta egokiera bako-

tzera moldatu zituen, proposamenak eta erabakiak bere gisara egin eta hartuz.

Juan de Valdés-en edo Erasmo beraren salakuntza literarioki bortitza-goetara iritsi gabe, Lukuk beti bizirik mantendu zuen erreformaren asmoa, baita erasmismoaren beheraldia hasi zenean ere (1535) eta, ondoren, Trento eta ondoko urteetan (1545-1556).

Marín, Lukuren biograforik onenak zera idatzi du beraren gotzainaldiaz: “se da cara decidida, sobre todo a partir del obispo Díaz de Luco, al problema espiritual de la región vascongada”, hau da, lurralde euskaldunetako fededunak aintzakotzat hartuta. Hain zuzen, herri euskaldunetako Elizaren erreforma-premia nabaria zen, kleroarenetik hasi eta herriareneraino, Araban bezala Gipuzkoan edo Bizkaian (Azcona).

Etorriko ziren ondoko lanei aurrea hartuz, diozesira iritsi eta berehala sinatu zuen «Escritura de capitulación y concordia con el Señorío de Vizcaya» deitua (Labayruk jasota duena). Jokamolde honek zerikusi gutxi zuen aurreko mendean bizi izandakoarekin: izan ere, gogorarazi izan den bezala, 1453-1503. hamarkadetako bost Gotzainak “es seguro que ninguno de ellos pisó su diócesis en la «parte del vascuence»” (Azcona), nahiz eta egoera hori gotzainen utzikeriez bakarrik ez gertatu (Val Valdivieso).

Lukuk, Trenton hainbat hilabete pasatu arren, sei Sinodo bildu ahal izan zituen, bere diozesian, horietako bi Gasteizen hain zuzen (1546, 1553), eta beste laurak Logroño-n, betiere eliz egiturak berbideratu eta zeregin pastoralak hobetuz joateko. Sinodoko arauak argitara eman ere berehala eman zituen (Lyon, 1555).

Euskararen historia sozialaz arduratu garenontzat, aparteko balioa du Lukuren pastoraltza-proiektuak, gure hizkuntzari eman nahi izan zion lekua-gatik: euskaldunak euskaraz dotrintatzeko ahalegin mintzatua nabariki sustatu nahi izan baitzuen. Ez dakigu Luku bera euskaraz hitz egiteko gai zen, baina, jaiotzez andaluziarra izan arren, pentsa daiteke beraren biografia ezagututa, ez zitzaiola euskal hizkuntza arrotza gertatuko.

Euskarazko predikua sustatzeko izan zuen gogoia, segur aski modu ezberdinetan erakutsi zuen; baina, ditugun lekukotasunen arabera, batez ere Loiolako San Ignazio eta jesulagunekin izandako eskutizketan ageri da ondoen (1545-1552); *Monumenta Historica SI* bilduman dago hori jasota. Garaiko iturriek behin eta berriz gogorarazten dizkigute bi pertsonaia hauen arteko, eta Gotzainaren eta Lagundiaren arteko, adiskidetasuna eta elkarren estimua.

Gotzain berri gisa sarrera egin baino hiru hilabete lehenagotik ageri

zaigu Luku eliztar euskaldunen premia erlijiosoek arduratuta, San Ignaziori Erromara hau idaztean: “Y por esto [Lagundiaren lanaz iritzi ona duelako, alegia], cuan afectuosamente puedo, le pido por merced, que haga tan gran limosna á aquella tierra, y á mí tan gran caridad y socorro spiritual, que me embie alguno de sus compañeros, *que me ayude, especialmente de los bascongados; pues V. m. sabe bien cuánta necesidad tiene aquella tierra, donde se habla esta lengua, de buena doctrina*”.

Esanahitsua gertatzen da, Luku-ren kasuan, halako pisuko elizgizonaren, kanonista sonatuaren eta gure “diasporako” semearen behin eta berritoko eske hau, ez lehenago, ez orduan eta ez gero modu horretan agiritan agertuko zaigun eskaera. Testuinguru horretan lekutu behar da, noski, Luku-ren baieztapen hau ere: “Yo trabajo que en my obispado se enseñe la doctrina cristiana a los niños, y creo, cierto, que es la obra más importante que se puede agora hazer, de las que son de tanta facilidad, para ayudar a la reformación del pueblo y institución de los cristianos”. Bistan da, ahalegin haiek, berezko emaitza erlijiosoekin batera, alfabetatzea eta eskolatzea zekartzatela.

Luku goiz desagertu zen (1556), Trentokoko Kontzilioa eta beronen arau erlijioso-kulturalak beren osotasunean indarrean jartzeko aukerarik

izan gabe (1563...). Badakigu, adibidez, Arabako Lautadako herrixketan Kontzilioko arauen albisteak ezkongai euskaraz eman zitzaizkiela gero (1565-1567). Badakigu Eltsok argitara berria zuela bere dotrina, Lazarraga bere lana eta Leizarraga bere itzulpena idazten ari zirela une berberean; gainerakoan, deus gutxi dakigu gure Erreforma katolikoaren garaiko historia kulturalaz.

Erreforma katolikoaren mugak

Gotzainak aipatu ditugu, Euskal lurraldea gobernatu zuten zenbait gotzain. Euskal Herriko seme erreformatzaileen artean egon zen hemen aipatu gabe utzi dugun besterik ere, Euskal Herriatik kanpoko diozesietan agindu zutenak. Horrelakoen artean daude frai Joan Zumarraga durangarra (†1549), Mexikoko Artzapezpikua eta bere testamentuan Arantzazurako Erasmoren idazlanak utzi zituenak, Diego Arabakoa (†1562), gasteiztarra, Salamancako katedraduna, gotzain zelarik Trenton egona eta *De Conciliis universalibus* obraren egilea.

Bi izen nafar daude, gainera, hemen ezin ahaztuak: Bartolome Karrantza mirandarra (†1576), Tolodoko Artzapezpikua eta Kontrarreforma barruko lehia gupidagabeen atxilo hartua, eta Frantzisko Nafarroakoa, tafallarra (†1563), Badajozko gotzain izanik, Trenton sona handia irabazi

zuena, batez ere gotzainen tokikotasun-erantzukizuna bortizki defendatu zuelako.

Guztien bizitzek aski garbi uzten dituzten erreforma katolikoaren esparrua zein zen eta berorrek mugak non zituen. Trentok eta Kontrarreforma espainiarrak ezarri zituzten muga horiek.

Ikusi ditugun erreformazale katoliko hauek ez zuten, noski, Erreforma protestanteak nahiago zuen bestelako teologiarik; fededunentzat Bibliarako sarrera mugatu-baldintzatu eskaintzen zuten; eliz barneko boterea piramide-egitura hierarkiko jakin batean eratuta ikusten zuten (Aita Santua /gotzainak / apaizak / herritar fededunak); ekonomiaren alde tik, eliz eraikin osoa sistema juridiko ongi oinarritu baten gain definituta zeukaten (diozesi, katedral eta parroketan gisa batean, institutu erlijioso eta monasterio-komentuetan, bestean); apaizgaien prestakuntzarako Seminarioak jaiotzeko zeuden, artean eta askoz geroago ere, apaiz xumeak pobrezia intelektual penagarrian zeuden garaietan; Iparraldean bezala Hegoaldean Koroarekiko lotura politikoarekin kontatu behar zuten (1516ko Konkordatuaren arabera, Iparraldean; Erret Patronatuan garatutako eskumenen arabera, Hegoaldean). Gotzainek Euskal Herrian gidatutako erreforma katolikoek ez zituzten zalan-

tzatan jarri gure artean indarrean zeuden funtsezko izaera-egoerak.

XVI. mendean, oinarritzko arazo horiei guztiei erantzun kontrajarriak eman zizkieten erreformazale katoliko eta protestanteek, eta kapitulu bakoitzak izan zuen bere trataera teologiko, juridiko, politiko eta ekonomikoa. Denaren azpian, gainera, elkarren kontrako pentsamolde zurrinak zeuden, lehia gogorrean.

Baina, bien bitartean, Protestantismoa ate joka iritsi zen gurera ere, bere erreforma asmoekin, XVI.eko gizon-emakumeek beharbada nahiago izan zezaketen bestelako erreforma batekin.

3. Nafarroa Beherea, protestante (1560-1572)

Protestantismoaren bigarren olatu-aldia, goian aipatu duguna, kalbinismoa izan zen, *Jean Calvin*-ek (1509-1564) Geneva-tik abiarazi eta hedarazi zuena. Luther baino kasik 17 urte gazteagoa zen Kalbin, Pikardiako Noyonen jaioa. Frantzia barnean hainbat gorabehera bizi ondoren, azkenik Suitzako Genevan hartu zuen egoitza, eta bertatik aitzina eraman proposatzen zuen erreforma, kasu honetan "Eliza Erreformatua" deitu zen eliza protestantearena¹⁰.

¹⁰ Cottret, B., *Calvin. Biographie*, Éditions Payot & Rivages, Paris 1998.

Eliza Erreformatuaren mezua

Kalbin-ek, pertsonalki, bere “artzain” laguntzaileen bidez eta eskutitzez sustatu eta gidatu zuen Euskal Herrian errotu, zabaldu, desegin eta iraun duen euskal Eliza Erreformatua, Nafarroako Koroaren babesa izan zuena eta Frantziako kalbinismoaren nondik norako eta aldarte on eta oke-rragoak bizi behar izan zituen.

Genevako erreformatzaileak bizi-aldi osoan landutako obra teologikoa *Institutio religionis christianae* izan zen (1539-1541, 1560), latinez eman eta laster frantsesera itzulia, dotrina erreformatuaren mezua herritarren artean azkarkiago hedatzeko. Kalbin-en eliz antolamenduaren eta hedapen-politikaren ardatz jakina izango da geroztik itzulpenak sustatu eta tokian tokiko hizkuntzak ere aintzakotzat hartuz lan egitea.

Ahalegindu ziren Bibliarekin ere jokabide bera gordetzen, itzulpenak hizkuntza herritarretara egiten alegia, eta Olivetan-en Bibliaren itzulpen frantsesa izan zen kalbindarrentzat argitalpen ofiziala (1535), gero, 1558an, Genevako irakasle eta artzai-nek berrikusita azken onarpen ofiziala eman zitzaiona. Gaur uste denez, Olivetan-en itzulpena egongo litzateke, eta ez Bibliako jatorrizko grekoa, Leizarragak egindako euskal itzulpe-naren oinarrian.

Katixima kalbindarrak ere bere historia du. Luther-enean izan zuen aurrekari ona, eta *Institution* deitua argitara aurretik ere prest egon ziren fede-sineskizunen katiximak, handia eta laster txikiagoa ere (1541). 1541eko Ordenantzetan irakas-sistema osoa arautu zen, lehen mailako eskolak aherentzi gabe, eta horren osagarria izan zen elizako dotrinaren antolamenduari zegokiona: gurasoak behartuta zeuden igande-eguerdietako dotrinara seme-alaba txikiak bidaltzera.

Eliza Ebanjeliotar luthertarren bezala, kalbindarren artean ere kantategiak berebiziko garrantzia izan zuen kristau elkartean Hitza guztien baitara errazkiago eramateko, talde-oroimen bizi eta bateratzailea sortzeko; ez ziren falta izan salmutegi itzulia eta bestelako kanta-bildumak. Hau dena goiz arautu zen Genevan (1537). Luther-tarren artean bezala, kalbindarretan ere tradizio finko eta bateratua sortu zen honetan, berorien sorkuntzan olerkari eta musikari handiek parte hartzen zutela.

Oro har, Protestanteen eta prezeskiago kalbindarren mezuaren hedapen-indarra argitalpen handiek baino orri gutxitako liburuxka ttikiek lagundu zuten gizarte-klase ezberdinetan, ideien isilpeko zabalkunderako aiproposenak berauek gertatu zirelako inondik ere: horrela erein ziren eskolatuen artean, gaztelu eta jauregietan,

Frantziako bide guztietan zehar, mandazain eta merkatarien ardurapean, botikari, mediku edo nekazari eta har-
ginen etxeetaraino Erreformaren testu
laburrak, otoitz-bildumatxoak, mota
guztietako panfletoak.

Erreforma-ideien zabalkundeak
eskatzen zuen sare sozialean eta gizar-
teko konplizitateetan ikusi behar da
(Erreformatzaile handien idazkien
balioan baino) arrakastaren arrazoia,
baita Frantzian ere, Febvre historiala-
riari sinetsi nahi badiogu.

1560rako, berehalako Nafarroako
Sinodo kalbindarrek eta Leizarragaren
taldeak aldez aurretik prest zeuzkaten,
bada, edukien programa, hedapen-
sarea eta pastoraltzako tresneria.
Leizarragaren *Testamentua Berria*,
Katexima edo *ABCa* erabakita eta espe-
rientzia helduarekin zetorren egitarau
baten barruan ikusi eta ulertu behar
dira. Gurean gertatutakoak Genevatik
zetozkigun iradokizunak jaso zituen,
Leizarraga maisutzat hautatu eta beroni
taldea eratu zitzaionean.

Ikusi dugun inguru horretan, ez da,
gainera, sobera harritzekoa, Leizarraga
bera eskola-irakasle ere bihurtzea,
nahiz eta gure hizkuntzaren historia
atzeratuagotik guztiz modernoa gertatu
burubide hura. Izan ere, azken buruan
herritarrek, Hitza ezagutzeko, premiaz-

koa baitzituzten “hizkuntzak eta giza
zientziak” ezagutzera, Genevako *Ordo-
nnances* kalbindarrek ziotenez
(1541)¹¹.

Testuinguru horretan, Hitzaren
zabalkunde eta hezkuntza bibliko-
liturgikoa (katekesian bezala eskolan),
prediku mintzatuekin bezala (edo
gehiago, kasuen arabera) baliabide
inprimatuaren bidez egin behar izan
ziren, XVI.ean eta gero ere.

Mugaldeko artegatasuna

Aipatu dugu Pasaiako liburu
luthertarren hura, 1523koa; baina,
katolikoentzat, berauen mugaldeko
kontrol-arazoa ez zen izan ondoko
hamarkadetan une bateko anekdota,
zeregin iraunkor eta egitarautua baizik.
I. Reguerari jarraituz zertzelada batzuk
ekarriko ditut hona, mugaldeko beldur
erlijioso-politikoari Inkisizioak nola
aurre egin zion jakiteko.

Calagorri-Logroñoeko Inkisizioak
arreta handiz hartu zuen muga haietatik
sar zitezkeen liburu eta inprimaki here-
tikoaren kontrola ongi eratzea. Inki-
sizioaren Auzitegietan Protestan-
tismoaren aurka saiatuena Calagorriko
hau izan zen Penintsulan, eta etengabe
jardun zuen 1539tik aurrera. Eta
Auzitegi honen barnean, 1560. etako
hamarkadan, jarduerarik garrantziko-

¹¹ <http://www.regard.eu.org/Livres.5/Calvin.homme.d.Eglise/04.html>: “on ne peut profiter en telles leçons que premièrement on ne soit instruit aux langues et sciences humaines”.

ena, hain zuzen, heresiari bideak moztea izan zen. Tokian tokiko komisariak zeuden, eta urtero-edo inkisidoreek bisitaldia egin ohi zuten Euskal Herrira. Kostaldeko portu eta barnealdeko hiri eta herriak errenkan ageri dira inkisidoreen berri-emateetan: Bilbotik hasi eta Hondarribiraino, Bermeo edo Pasaiatik Elorrio edo Eskoriatza nahiz Seguraraino.

Inkisizioaren bisitaldi eta lan-prozedurak sarritan ez ziren herrietako agintarien gustuko, eta ezaguna da hainbat kexu, batez ere merkataria eta bestelako kaltetuen artean. Inkisidoreen jardunbideak kritikatzeko zituzten: portuetako merkataritzari ezartzen zizkieten eragozpenengatik, diruzale ageri zirelako, edo agintekeria zebilzualako.

Izan ere, badirudi mugaldeko jendearekiko susmotan zebilela Inkisizioa: "Advierta vs. que en San Sebastián no hay cincuenta casas sin mezcladez de extranjeros, que es gran mal", Moral inkisidore bisitariak zioenez (1567). Atzerritik zetorren arriskua, nonbait: 1538-1558.etan Calagorriko Auzitegiak epaitutako 946 lagunetik protestante garbitzat eman zituenak 62 izan ziren, gehienak atzerritarrak.

Portutik porturako garraioak laguntzen zuen argitalpen protestanteen Euskal Hegoalderako sarrera:

Akitaniatik etor zitezkeen liburu-pardelak, edo geure Iparraldetik (Donibane-Lohizune), baina baita urrunagotik ere (Bordele, Errotxela) edo Flandriatik. Protestantismoaren ideiak Donostian nahiz Bilbon erosi zitezkeen, bada. Horren beldur bizia zegoen agintari zibil eta eliztarren artean, 1560.ko hamarkada hartan. Aipatutako Moral inkisidore berak esanda utzi zuen zein zen bere beldurra (1567): "Me alarma que en La Rochela los luteranos dicen que tienen ministros en San Sebastián y que predicán cada noche, pero yo no lo puedo descubrir". Gero, kezka ofizial hori beldur interesatu ere bihurtu zen, eta horrek ere balio izan zuen, adibidez, sortzeko komentu berrien proiektuaren aldeko arrazoiak emateko (Arrasate, Donostia).

Frantziako higanautekiko izua oso garaiz aurki liteke inkisidoreen artean, baita Joana Albretekoaren Erreformak pausu erabakiak eman aurretik ere (1562). Nafarroa Behereko Erreformak asaldatuta zeuzkan Inkisizioko funtzionariak: 1568-1569.etan Otsagiko komisariak Erreforma haren albisteak eman eta erne egoteko adierazi zion Epaitegiari. Calagorriko fiskalak zioenez, Nafarroa Behereko erasoetatik ihesi zetozen katolikoaren artean bazen kalbindarrik. Hortaz, berriz ere, Aragoitik Hondarribirainoko mugak zaindu beharra zegoen, ez kostaldea soilik.

Erreforma protestanteari aurre egiteko eta Kontrarreforma katoliko gogorrenaren barruan, euskal Hegoaldea azkenean itxirik geratu zen kalbindar mugimendu boteretsuaren aurrean.; ez, ordea, Iparraldea, eta horretaz esan behar da zerbait.

Joana Albretekoa, Erregina eta erreformatzaile

Idatzi izan denez, “el quietismo místico de Margarita de Navarra no satisfaría a su hija Juana de Labrit, quien sin embargo tenía un gran respeto por los ideales de su madre. [...]. Juana era mucho más realista e independiente que su madre” (Y. Oria). Joanaren erreginaldian, bada, inguruko Monarkien politika erlijiosoetatik aske jokatzeko adorez nahikoa jantzia ageri zen Erregina gaztea, Joana Albretekoa (1528-[1555]-1572)¹².

Inguru guztian eraso nagusi zenean, Joana Erreginak tolerantzia eskaini nahi izan zien ideia eta mugimendu erreformatu protestanteei, lehen urrats bezala. Erregina ez zen, ordea, 1560ko Gabonak arte Erreformara bihurtu, hain zuzen aurreko udan Teodor Beza-koarekin (Kalbin-en konfiantza osoko gizona berau) elkarrizketatu arte.

Erabaki pertsonal horren aitzinetik bazen, bestalde, Frantzian, Biarnon eta

Nafarroan Erreformarekin “Ebanjeliora bihurtutakorik”. Kalbinismoak hedapen-urte handiak izan zituen ordurako, eta are handiagoak hurrengo hamarkadetan.

1560aren inguruko datu soziologiko batzuk ezagunak ditugu: Frantziako eliza kalbindarrak gutxi batzuk ziren 1540-1550. urteetan, baina 1555etik aurrera gertatu zen goraldi nabaria, eta 1561ean 500 eliza eta 2.150 lagunarte izateraino. Urte bertsuan, agian 18 milioitarik bi milioi ziren protestanteak Frantzian.

“Higanauten” alderdia (horrela deitu zitzairen) gero eta handiago eta sendoago ageri zen, Parisen eta Probintzietan, eta ekinbide sozio-politiko berriei heltzeko prest zegoen, Estatu bera eskuratzeko ere. Gerora asmo horrek porrot egin zuenean, higanautek Monarkiaren barnean beren Estatu propioa eraikitzaera jo zuten, eta gerra-urte luzeen buruan lortu hori, muga jakin batzuen barruan (Édit de Nantes, 1598).

Eliza Erreformatuak 1559an ospatu zuen Frantzian lehenengo Sinodo Nazionala, elkarte kalbindarrei beren baitan antolamendu- eta fede-segurtasuna areagotuz (*Confessio de foi et de la Discipline*). Baina, gizartean zinezko segurtasunik izateko hori nahikoa ez zenez, hurrengo bi urteetan fede-elkarte horiek tokian tokiko “jaun babestaile-

¹² Idazlan luzeago bateko zenbait oharkez laburtuko dut hemen: Intxausti, I., “Leizarraga eta leizarragatarrak”, in: *Sancho el Sabio* XL, 1995, 119-160.

ren” baten atérpea bilatu zuten, arrisku politikoei ere aurre egiteko asmoz.

Ez da, bada, harritzekoa Nafarroako Erreginari (eta Erregeari) beren Erresuman ez ezik Frantzian ere higanauten gidaritzza garaienetakoa jasotzea egokitu baldin bazitzaien; baina, nolana ere, Erreginaren erlijio-politika, batez ere bertoko protestantismoaren gain egin zen, arrakasta ezberdinekin Biarnon eta Euskal Herrian, eta berorri oinarri pastoralak (Genevatik prestatuta zetozen Artzainak: euskaldunak eta beste), intelektuala (Ortezeko Akademia, 1566) eta eliz antolamendua (*Ordenantzak*, 1570-71) ezarri eta indartzuz.

Artzainen prestakuntza, horixe izan zen Erreginak ongien zaindutako heziketa-barrutia, baina beti ere horretara mugatu gabe. Oro har, Ordenantzetan ez da falta haurren hezkuntzarekiko araurik. Egia da, garaiko egoeraren barnean, samurragoa gertatu zitzaiola goi-eskolak sortu eta eratzea, herri xumearentzako irakaskuntza orokorra antolatu eta garatzea baino. Herritarren kulturarekiko eta Jainkoaren Hitzaren hedapenarekiko politika-testuinguru honetan zetorren Erreginaren hizkuntz politika ere.

Jainkoaren Hitza, euskaraz ere

Eliza Erreformatu jaio berriak Biarnon bezala Euskal Herrian bertako

hizkuntza idatziei eliz tresna literarioak sortzeko aukera izan zuen. Euskarari dagokionean nahitaez aipatzekoa dugu Joanes Leizarraga eta lagunena lana, Testamentu Berria itzultzeaz gain liturgia eta katekesirako bestelako testuak ere sortu zituen, zeregin honetan ere garbiki Genevako eliz ereduari jarraitzen ziola.

Idazkuntza horretarako erabaki politiko-instituzionalak hartu ziren, ordura arte Eliza Katolikoak inoiz lehenagotik tamaina berekoak hartu gabeak. Leizarragarena ez zen izan ahalegin pertsonal eta pribatua, urruneko nahiz hurbilagoko eragin-ekimenen bidetik iritsi zitzaigun emaitza baizik, eta Erregina eta Sinodoekin batera beste laguntza sozialak ere bildu zituen.

Joanes Leizarragak bere hitzaurreetan gogoratzen digunaren arabera, babesle boteretsu batzuen izenak bada-kizkigu: Erregina bera, Agramonteko “loktenent jeneral” jauna, Beltzuntze eta Mehaineko jaunak eta “bertze ene adiskideak”.

Leizarragarenak bere antolaera ofiziala izan zuen. Ez zen izan apaiz eskolatu eta langileari eman zitzaion egitekoa bakarrik; beraren gidaritzapean lantaldea sortu zen, gainera, lana burutu ahala zuzenketak eta aldaketak iradokitzeak bildutakoa. Data jakinetan eraman zen aitzina azkenean liburu mardula

bilakatutako argitalpena (1563-1571)¹³; ez zen izan, beraz, luzatu eta luzatuz egindako lana, taldean eta azkarki baina arretaz burutua baizik.

Hau dena, ordea, garaiko itzulingeruan begiratu behar da, izan ere, Nafarroako Erreinua ere (beregaina izan arren) Frantziako arazo politiko-erlijiosoan tartean aurkitu zen, Espainiako Felipe II.aren politikaren zinezko mehatxua ondoan zuela. Nahiz eta Augsburg-eko Bakeak (1555), Alemaniako aniztasun politiko-erlijiosoak ontzat eman, Bake hark deus gutxi balio izan zuen Frantziarako eta kalbindarrentzat; Frantziak berariazko akordioa behar zuen bakerik izatekotan. Nafarroa ez zen, artean, Frantzia, baina honen itzalpeko politikan bizi behar zuen, praktikan.

Frantziako Errege-Erreginek 1562an sinatutako tolerantziarako ediktuak ez zuen inor asebate, eta urte beretik aurrera hogeita hamar urtetan gerrate amaigabe bati eman zitzaion hasiera: ez katoliko eta ez erreformatuak zeuden prest ondokoari amore emateko, eta erlijio-bizitza soziala arautzeko erabakiek beti egingo zuten talka gaizto armaturik, zetozen alde bietako arerioekin.

Nafarroan ere hala gertatu zen: Joana Erreginaren Ordenantzek (1566, 1571) Erreformari askatasunez hedatzeko erraztasunak eman nahi izan zizkiotenean, noblezia katoliko eta herritarren erresistentziarik ez zen falta izan, Erreforma-proiektuak aurrera egin ahala. Bi alderdiak armaz horniturik zeuden eta gerrarako ere antolatuta. Frantziako erlijio-gerrek luze joko zuten, eta Nafarroak jakin zuen horretaz zerbait, eliza, komentu eta herritan.

Erljio-aniztasunaren ideia, askatasun erlijiosoaren gogoia eta herritar sinestun bakoitzaren hautapena gero eta urrunago agertu ziren 1560ko hamarkadak aurrera jo ahala. Gatazka-epe historiko hark ez zuen biderik aurkitu balio humanista eta bakezale horiek bere teologia eta politikaraino eramateko. Urrun zeuden, artean, 1589ko Nantes eta 1648ko Westfalia, eta are urrunago oraindik Frantziako Iraultzaren herritarrentzako askatasun-ametsak, eta, zoritxarrez oso bertan 1572ko San Bartolome Gaua, protestanteen aurka antolatutako triskantza izugarria¹⁴.

Mendebalde kristauan zaila eta garestia gertatu zen fededunei beren erlijio-askatasuna ahalbideratu eta segurtatzea, hainbat belaunaldi behar izan ziren horretarako.

¹³ Leizarraga, I., *Iesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*, 1571 (Izenburua hori izanik, TBaz aparte besterik ere bazuen bertan: urteko eliz egutegia, liturgiako testuak, katixima, etab.).

¹⁴ Nahiz eta begirapuntu katolikoa oso nabaria duen, ondoko historia honetan erlijio-tolerantzia politikoaz informazio ugaria aurki dezake irakurleak: Leclerc, J., *Historia de la tolerancia en el siglo de la Reforma*, Editorial Marfil, Alcoy 1967.